




# EKINTZA SINDIKALEKO INFORMEA

2024/2025

**Informea**

**LAB<sup>7</sup>**

EUSKAL  
SINDIKALISMO  
ERALDATZAILEA



## SARRERA

Euskal Herria langile antolakuntzarako eta borrokarako eremu autonomo eta dinamikoa da. Urtez urte bildu eta aztertzen ditugun datuek berretsi egiten dute hori: gatazkak aktibatzen dira, eta langile borroka ez da apaltzen. Langileriak erakutsi du eskubideen defentsarako prest dagoela, eta borroka horiek ez dira soilik lan-eskubideen esparru hertsian kokatzen. Langileek ulertzen dute haien borroka ez dela bakarrik enpleguari lotzen zaiona, eta zerbitzu publiko duinak aldarrikatzea, zaintza erdigunean jartzea, prekarietateari aurre egitea eta eskubide sozialen defentsa langile mugimenduaren ezinbesteko ardatzak bihurtu dira.

Zentzu horretan, 2024-2025 ikasturteko dinamika nagusietako bat gutxieneko soldata propioaren aldeko borroka izan da. Guk hemen, Euskal Herrian, gure gutxieneko soldata erabaki nahi dugu, lan eta bizi duinagoa ahalbidetuko digula uste dugulako. Horretarako borrokan jarraituko dugu.

Langileek beste hainbat eremutan ere urrats sendoak eman dituzte lan eta bizi baldintza duin eta bizigarriak aldarrikatzeko. Borroka eta aldarrikapen ezberdinek hartu dute protagonismoa: zaintza eta feminismoa; zerbitzu publikoen defentsa; euskaraz lan eta bizitzeko eskubidea; negoziazio kolektiborako marko propioaren aldeko aldarria; eros-ahalmenaren galera geldiarazteko neurriak; lan osasuna edota arrazakeriaren aurkako jarrera aktiboa. Testuinguruaren arabera batzuk edo besteak nabarmendu badira ere, guztiak borroka beraren parte dira.

Borroka guztiak, ordea, ez dira izan lan eta bizi baldintza hobeen aldekoak, patronalaren erasoen aurrean ere antolatu eta erantzun dugu: kaleratzeak, eskubide murrizketak, jazarpen sindikala, diskriminazioak, laneko heriotzak... jasan ditugu ikasturte honetan, eta langileak ez dira isilik geratu. Sindikalismoa bizia da Euskal Herrian, eta hori datuetan ez ezik, lantokietan eta kalean ere ikusten da. Egungo testuinguru sozioekonomikoak erronka handiak jartzen dizkigu aurrean, baina baita aukera berriak ere. Datorren ikasturterako oinarriak ezarri ditugu eta LABek orain arte bezala jarraituko du lanean.

## ONDORIOAK

### 1.- GUTXIENeko SOLDATA PROPIOAREN ALDEKO BORROKAK BIDE SENDOA IREKI DU

Kurtso honetan, gutxieneko soldata propioaren aldeko borroka, beste sindikatu batzuekin batera egin duguna, izan da LABen jardunean ardatz nagusia. Borroka hori tresna estrategiko eta eraginkor gisa ulertu dugu soldata arrakalak murrizteko, pobrezia eta prekarietateari aurre egiteko eta aberastasunaren banaketa bidezkoago baterantz jotzeko. Helburua argia da: Euskal Herriko egoera sozioekonomikoari egokitzen zaion gutxieneko soldata propio bat ezarriz lan baldintzak hemen erabakitzea, herritarren lan eta bizi baldintzak duintzeko. Zentzu horretan, bi bide ari gara lantzen: Bata, bertako eskumenen baitan, lanbidearteko akordioa. Bestea, eskumen berriak eskuratzeko herri ekimen legegilea martxan jarritz abiatu dugun sinadura bilketa.

### 2.- LAN ETA BIZI BALDINTZEN ALDEKO BORROKAN INPLIKATZEAZ GAIN, LANGILERIA ZERBITZU PUBLIKOEN DEFENTSAN MOBILIZATU DA

Ikasturtean zehar argi gelditu da LABek ez duela soilik langileen lan eta bizi baldintzen hobekuntzaren aldeko borrokan jardun, baizik eta zerbitzu publikoen defentsan ere konpromiso aktiboa izan duela.

Osasungintzan, osasun publikoaren aldeko plataformen eta sindikatuen arteko dinamika soziosindikaletan parte hartu du, eta Osasun Itunaren aurrean jarrera kritikoa erakutsi du benetako apustu publikorik ez dagoelako.

Hezkuntza publikoan baliabideetan zentratutako borroka garatu dugu, akordio onetara iritsiz. Argi geratu da Madrilek jartzen dituen oztopoak gainditzeko aukera dagoela horretarako borroka egin eta borondate politikoa badago. Edonola ere, akordioen betetze faseak erronka berriak planteatzen ditu, Jaurlaritzak izenpetu dituen akordioak betetzeko asmo garbirik ez baitu erakutsi.

Zaintza arloan, "Langile publikoak gara" dinamikaren baitan, zaintza langileen izaera publikoaren aitortza eta lan baldintzen hobekuntza bilatu dugu. Azkenik, etxebizitza arloan ere ekintza sindikala garatzeko hautua egin dugu, etxebizitza eskubidea langile borrokaren parte bilakatuz.

### **3. INDUSTRIAN ENPLEGUAREN GALERA: LANGILERIAREN ESKUBIDEAK ERDIGUNEAN IZANGO DITUEN TRANTSIZIO BATEN PREMIA**

Azken ikasturtean industria sektorean enplegu galera larriak gertatu dira. Enpresa askotan kaleratzeak eta itxierak izan dira, eta borroka sindikal sendoa egin dugu egoerari aurre egiteko helburuz. Argi dago ezinbestekoa dela langileriaren eskubideak erdigunean jarriko dituen hausnarketa estrategikoa egitea: zer nolako industria eredu nahi dugun eta zein trantsizioak eramango gaituen horretara.

LABek trantsizio ekosozialaren aldeko apustua egiten du: langileen parte-hartzea, planifikazioa eta jabetza publikoa ardatz izango dituen ereduak; Europatik, Madrildik eta Jaurlaritzatik industria militarri eman nahi zaion bultzadari ezezkua emango diona; enpresen errotzeari, inbertsio eta berrikuntzari eta enplegu eskubidearen bermeari atea irekiko diona.

LABen apustua argia da: industria bizia, bidezkoa eta jasangarria, langileekin eta langileentzat eraikia.

### **4. SEKTORE FEMINIZATUAK, ZAINITZA ETA AZPIKONTRATAK. PATRONALAK EMAKUMEEN\* LANEI BALIOA KENTZEN DIE**

Sektore feminizatuetan, administrazio publikoetako azpikontratetan eta zaintza lanak egiten dituzten eremuetan gatazka gehienek irekita jarraitzen dute, batezbestekoa baino proportzio askoz ere altuagoan.

Datu horiek patronal eta administrazio publikoek oinarritzeko lanei —izan zaintza lanak, izan bestelako oinarritzeko zerbitzuak— ematen dieten balio eskasa agerian uzten dute. Oinarritzekoak ez diren lanetan, produkzioari gehiago lotutakoetan, industrian, greben eta mobilizazioen bidez patronala errazago mugiarazteak agerian uzten du lan batzuei eta besteei ematen dieten balio desoreka.

### **5. LANGILERIA BORROKATZEKO PREST DAGO ZAINTZAREN, LAN OSASUNAREN, EUSKARAREN ALDE EDOTA ESTATALIZAZIOARI AURRE EGINEZ**

Aurtengoan ere langileriaren prestutasuna eta konpromisoa agerian geratu da borroka eremu askotan: zaintza sistema publiko komunitarioaren defentsan zaintza langileen ezinbestekotasuna eta izaera publikoa agerian utziz eta lan baldintzen hobekuntza borrokatuz; absentismoaren inguruan patronalak darabilen diskurtsoari aurre eginez eta laneko gaixotasun, istripu eta heriotzak gogor salatuz, lan osasuna eta prebentzioa landuz; euskararen aurkako oldarraldiari aurre egin eta euskaraz bizi eta lan egiteko eskubidea aldarrikatuz; edota lan harremanen euskal esparruaren eraikuntzan urratsak emanez, lan harremanen estatalizazioari aurre egitearekin batera.

## 2023/2024 KURTSOA DATUETAN

- 204 borroka piztu ditugu.
- 75 borroketan greba erabili da.
- Sektore mailako borrokek 48 izan dira, horietatik 15 sektore feminizatueta.
- Enpresa mailako borrokek 156 izan dira. 29 feminizatuak.

### DATUAK EREMUKA ETA MOBILIZATZEKO ARRAZOIAK

| GATAZKAK<br>SEKTOREKA | INDUSTRIA | ZERBITZU<br>PRIBATUAK | ZERBITZU<br>PUBLIKOAK | GUZTIRA |
|-----------------------|-----------|-----------------------|-----------------------|---------|
| Orokorrean            | 67        | 37                    | 100                   | 204     |
| Feminizatuak          | 2         | 12                    | 43                    | 57      |
| Grebak                | 32        | 15                    | 28                    | 75      |
| Itxita                | 46        | 12                    | 19                    | 77      |

**Borroka indartsuenak sektore publikoan izan ditugu.** Batetik, langileek lan eskubideak zerbitzuaren kalitatearekin lotu izanak ahalbidetu digu borroka kopuru garrantzitsu hori izatea, osasungintzan, hezkuntzan, zaintzan... Langileak, kasu askotan eragile sozialekin elkarlanean, zerbitzuaren kalitatearen alde eta lan baldintzen defentsan mobilizatu baitira.

Bestetik, kontuan izan behar dugu administrazio publikoa (zuzena eta azpikontratak) dela itxiera tasarik baxuena duen eremua, beraz, gatazkek irekita jarraitzen dute denboran zehar. Gaiei dagokionez, zerbitzu publikoen defentsak eta negoziazio kolektiboak izan dute pisurik handiena, eremu publikoak izandako gatazken %74an hain zuzen ere. Erasoei aurre egiteko borrokaldiak %19,80 izan dira, eta horietan tarte handiena euskararen aurkako oldarraldiaren kontrako mobilizazioek izan dute.

**Emakumeak borroka horien lehen lerroan.** Eremu publikoko gatazken %43 sektore feminizatueta izan dira. Horrek zera erakusten du, bizitza sostengatzeko ezinbestekoak diren lanak egiten dituzten langileen artean gehiengoa garesti emakumeak, eta gainera, borrokara batzeko garaian lehen lerroan egoten garesti. Lan horiek, gainera, borroka indartsuagoak behar dituzte akordioetara iristeko.

**Industrian** borrokatzeko eta mobilizatzeko arrazoi garrantzitsuena patronalaren aldetik etorritako erasoei aurre egitea izan da, gatazken erdia baino gehiagok %55,22 helburu hori izan du. Erasoen artean lekurik handiena kaleratze eta itxierak hartu dute. Gainerako borrokaldiei dagokienez, %40 hitzarmenaren negoziatioari edo lan baldintzen hobekuntzei loturiko gatazkek izan dira.

**Zerbitzu pribatueta** gatazken %62 negoziatio kolektiboak edo lan baldintzen hobekuntzak aktibatu du, tartean estatizazioari aurre egiteko hainbat borroka. Erasoei dagokienez, ikasturte honetan zenbateko txikiena izan duen eremua izan da, %16,22arekin.

OROKORREAN HONAKOAK IZAN DIRA MOBILIZATZEKO GAI NAGUSIAK:

- Negoziazio kolektiboa eta zerbitzu publikoen defentsa %61
- Eskubide murrizketa eta erasoak %31
- Bestelako aldarrikapenak %8

DATUAK HERRIALDEKA:

Kopuruan erreparatzen badugu Bizkaian aktibatu da gatazka gehien, ondoko taulan agertzen den bezala. Edonola ere, langileria aktibo kopuruarekin alderatuz, Araba da proportzioan gatazka eta greba gehien aktibatu den herrialdea.


|              | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | NAFARROA | EAE | HEH+IEH | TOTALA |
|--------------|-------|---------|----------|----------|-----|---------|--------|
| Orokorrean   | 34    | 53      | 40       | 38       | 37  | 2       | 204    |
| Feminizatuak | 4     | 11      | 7        | 12       | 21  | 2       | 57     |
| Greak        | 17    | 22      | 12       | 19       | 5   | 0       | 75     |
| Itxita       | 13    | 31      | 20       | 7        | 6   | 0       | 77     |

KURTSOEN ARTEKO KONPARAKETA

|                          | 2017/2018 |    | 2018/2019 |    | 2021/2022 |    | 2022/2023 |     | 2023/2024 |    | 2024/2025 |    |
|--------------------------|-----------|----|-----------|----|-----------|----|-----------|-----|-----------|----|-----------|----|
|                          | GREBAK    |    | GREBAK    |    | GREBAK    |    | GREBAK    |     | GREBAK    |    | GREBAK    |    |
| Borroka kopurua          | 124       | 67 | 127       | 80 | 171       | 93 | 204       | 108 | 190       | 84 | 204       | 75 |
| Sektore feminizatuak     | 27        |    | 29        |    | 48        |    | 44        |     | 38        |    | 57        |    |
| Sektore mailakoak        | 34        |    | 18        |    | 31        |    | 54        |     | 35        |    | 48        | 15 |
| Sektorekoak feminizatuak | 12        |    | 7         |    | 18        |    | 21        |     | 18        |    | 28        |    |
| Enpresa mailakoak        | 90        |    | 109       |    | 140       |    | 150       |     | 155       |    | 156       | 60 |
| Enpresakoak Feminizatuak | 15        |    | 22        |    | 30        |    | 23        |     | 20        |    | 29        |    |

## ESTALDURA TASA

Kontuan izanik gatazken zenbateko altuena negoziazio kolektiboak hartzen duela oraindik, ezinbestekoa zaigu hitzarmenen estaldura tasaren jarraipena egitea. Estaldura tasa bere horretan aztertzeke EAEko datuei erreparatu behar diegu, Nafarroako Foru Erkidegoko datuen faltan. Zera azpimarratuko genuke, 2025. urtea azken urteetako estaldura tasarik altuenarekin hasi dugula, hau da, hitzarmenen negoziazio gutxi ireki direla.



## BORROKA ESANGURATSUAK

### Gutxieneko soldata propioa

Gutxieneko soldata propioaren aldeko borrokak izan dira dinamika sindikalaren ardatz nagusia. Gainera, datorren ikasturteko borrokarako oinarri sendoak ezarri ditugu. Herritar guztien bizi baldintzak hobetzeko giltzarria da, eta gure errealitate sozioekonomikoari erantzungo dion neurri bat izan behar du.

Onuradun nagusiak izango dira sektore prekarioenetan diharduten langileak, hala nola, sektore feminizatuetan, langile migratu eta arrazializatuen presentzia altua dutenetan, edota gazte langileria pilatzen den arloetan. Hala ere, soldata propioa ezartzeak langileria osoaren egoera hobetuko luke. Horregatik, lanbidearteko akordioa bultzatu dugu eskumen propioen baitan, eta herri ekimen legegilearen bidez sinadurak biltzen ari gara gure helburuari babes soziala emateaz gain, eskumen berriak eskuratzeko asmoz.

Patronalek, beren aldetik —Confebask eta CEN—, eztabaidari atea itxi diote, boterekeriaz eta jarrera autoritarioz jokatu dute, negoziazioaren aukera zapuztuz. Egoera horren aurrean, datorren ikasturterako erronkak argi ditugu: gutxieneko soldata propioa borroka sindikalaren erdigunean mantentzea; patronalak bere jarrera aldatu ezean, gatazka soziala areagotzeko prest gaude.

### Lan harremanetarako eta babes sozialerako markoa indartu. Estatalizazioari aurre egin

2025. urtea azken urteetako estaldura tasarik altuenarekin hasi dugu, %67,70ko tasarekin, eta ez da kasualitatea, lan harremanetarako eta babes sozialerako euskal esparrua indartzeko egindako etengabeko ahaleginaren emaitza da. Estatutik inposatutako estatalizazio dinamikari aurre egiteko borrokan jarraitu dugu, bai sektore publikoan, bai pribatuan. Administrazio publiko osoan hemen bertan erabakitzeke dinamika indartu da, Madrildik ezarritako mugak gainditzeko helburuarekin.

Sektore pribatuko hainbat eremutan ere ahalegin berezia egin dugu tokian tokiko negoziazio kolektiboak indartzeko: Nafarroako kontserba begetaletan, EAEko kolektibitateetan, Arabako eta Nafarroako zahar egoitzetan, EAEko kimika sektorean, Ipar Euskal Herriko etxez etxeko laguntzan eta Nafarroako grafikagintzan,

besteak beste. Azpimarratzekoa da kasu honetan ere sektore feminizatuak direla batik bat estatalizaturik, eta bide batez, prekarizaturik jarraitzen duten sektoreetan gehiengoa. Egoera hori aldatu nahian estatutik inposatutako hitzarmen markoak gainditzeko eta langileen eskubideak hobeto bermatzeko greba eta mobilizazio ugari egin ditugu.

Kasurik gehienetan oraindik borrokatzen jarraitzen dugu, ez baita erraza izaten ari patronala mugitzea. Hala ere, berri positiboa da estaldura tasaren igoera nabarmena izan dela eta joera hori sendotzen ari dela: gero eta langile gehiagok dauka indarrean dagoen hitzarmen bat Hego Euskal Herrian. Azken urteetako borrokek fruitua eman dute, euskal esparru propioaren norabidean urrats sendoak emanez.

## **Hego Euskal Herriko hezkuntza publikoa**

Kurtso honetan hezkuntza publikoaren aldeko borroka pisu handia izan du LABen jardunean, Hego Euskal Herri osoan. Sektore ezberdinetan borroka dinamika sendoak garatu ditugu: haurreskolak, heziketa berezia, sukalde eta garbiketako langileak eta irakasleak. EAEko greba egunei eta mobilizazio irmoei esker, akordio garrantzitsuak lortu ditugu langileen lan baldintzak eta hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzeko. Lortutako akordio horiek milaka langile grebalariren eta sektoreko langileen konpromisoari esker izan dira posible; LABek hasieratik baliabide publikoen hobekuntza jarri du borroka erdigunean. Gainera, argi geratu da Eusko Jaurlaritzak sektore askotan akordioetara ez iristeko erabili duen aitzakiari —Madrildik ezarritako mugak eta debekuak— aurre egiteko aukera dagoela. Borondate politikoa dagoenean eta borroka bidez behartzen denean, posible da hemen erabakitzea bertako langileei eragingo dizkieten lan baldintzak.

Nafarroan ere hezkuntzako hainbat sektoretan greba egunak egin ditugu eta LABek babestu ez dituen akordioak gauzatu dira. Edonola ere, datorren ikasturterako borroka ez da eten: exigentzia berarekin jarraituko dugu hezkuntza publiko duin eta kalitatezko baten alde.

Bestalde, EAEko akordioa betetzen ez dela salatu dugu jada; Eusko Jaurlaritza ez da konpromiso guztiak betetzen ari, akordioetara ez iristetik, akordioak ez betetzera pasa da. LABek kontrol mekanismo aktiboak ezarriko ditu, akordioen jarraipena egiteko. Hori bermatzen ez bada, mobilizazio berriei ekiteko prest gaude.

Azken batean, hezkuntza publikoa indartzeko borroka estrategikoa da gure sindikatuarentzat: hezkuntza sistema inklusibo, duin eta parekide baten alde lanean jarraituko dugu, bai ikastetxeetan, bai kalean, bai negoziazio mahaian.

## **Zaintza langileen borroka. Langile publikoak gara dinamika**

Aurtengo ikasturtean zaintza langileek borroka irmoa garatu dute, geure bizitza sostengatzeko ezinbestekoak direla argi utziz. Arabako eta Gipuzkoako erresidentzietako langileek greba jarraituak egin dituzte, Nafarroakoek mobilizatuak burutu dituzte, eta beste hainbat zaintza eremutan ere, adibidez etxez etxeko laguntzan, langileak aktibatu dira aldarrikapen horiek babestuz.

Zaintza sektoreak merkantilizatuta eta prekarizatuta daudela salatu dugu, ezinbesteko zerbitzu publikoak izan arren. Horregatik “langile publikoak gara” aldarrikapenak indar berezi bat hartzen du. Langile publiko izatearen aitortza eskatzen dugu, sektorearen lan baldintzak, lan harremanak eta zerbitzua hobetzeko beharra aldarrikatuz. Gainera, zaintza zerbitzuen publikazioa ezinbestekotzat jotzen dugu, eta bide horretan, langileen lan baldintzen ekiparazioaren alde ari gara borrokan.

Hego eta Ipar Euskal Herrian aldarrikapen berdinak ditugu, eta horregatik, ekainaren 11n Euskal Herri mailako manifestazioa egin genuen, non zaintza langileen aldarrikapenak ozen entzun ahal izan genituen. Aipatu

dinamika funtsezkoa da sektorearen ikusgarritasuna eta aitortza soziala handitzeko, baita borroka politikoa indartzeko ere. Datorren ikasturtean jarraipena izango du.

- **Etxeko langileak:** Etxeko langileek erregimen berezia jasaten dute, lan eskubide ugari urratuak dituzte, eta laneko indarkeria eta arrazakeria pairatzen dute. Hitzarmen propioa lortzeko bidean kontrako epaia jaso arren, errekurritu dugu, eta borroka indartzeko konpromisoa dugu. Aldarrikapen nagusien bilduma bat osatu dugu dekalogo moduan, eta dekalogo hori oinarri hartuta, datorren ikasturtean urrats sendoak emango ditugu etxeko langileen lan baldintzak hobetzeko eta haien eskubideak bermatzeko. Sindikalismo feminista eta antirrazista garatzen ari gara eta etxeko langileen lan eta bizi baldintzak hobetzeko bidean gaude.

## Enplegu industrialaren galera. Enplegua mantentzearen aldeko borrokak

Azken urtean enplegu galera garrantzitsua izan dugu, sektore eta enpresa batzuetan kontzentratuta, hala nola, BSH, SDA Factory, Ayala Vidrio, Guardian, MFS, Roal, Talleres Mecánicos Gernika, Astilleros Balenciaga, Jaso Equipos de Obras y Construcciones, Mecanizados Tar, Talleres Ondoizabal etab.

Egoera horrek argi utzi du ezinbestekoa dela herri bezala industriaren inguruko gogoeta estrategikoa egitea: zer nolako industria behar dugu eta zein trantsiziok eramango gaitu horretara. LABek garbi dauka trantsizioa beharrezkoa dela, baina ez edonolako: trantsizio ekosozialaren ikuspegitik egin behar da, langileen parte-hartzea bermatuz, planifikazio publikoaren bidez eta interes kolektiboa ardatz hartuta.

Industria militarri Eusko Jaurlaritzatik, Gobernu espainiarretik eta Europatik eman nahi zaion bultzada arbuiazen dugu, eta argi daukagu industria militarrek desagerpeneranzko bidea egin behar duela, bere ekoizpen ahalmena sozialki erabilgarriak eta ekologikoki beharrezkoak diren produktuetara bideratuz. Bestalde, egun administrazio publikoetatik industriara bideratzen diren diru-laguntzen jarraipen eta berme eza ere salatu dugu. Izan ere, diru-laguntza horiek jasotzeko ez da inongo bermerik eskatzen enpresaren errotzeari, inbertsio edo berrikuntzak egiteari edota enplegua bermatzeari dagokionean. Gainera, ez dago enplegu industrial duina bermatuko duen inolako planik. Jaurlaritzatik eta Nafarroako Gobernutik industriako enplegua duintzat ematen da, eta hori ez dator guztiz bat errealitatearekin.

Enplegu galerari aurre egiteko, (bai kaleratzeak iragarri direnean, baita Aldi Baterako Enplegu Erregulazioak aurkeztu izan direnean) borroka sindikala aktibatu dugu hainbat enpresatan, kaleratzeei, enpresen itxierei eta industria desegituratzeari aurre eginez. Langileen eskubideak erdigunean jarriz jardun dugu beti, eta horretan sakontzen jarraituko dugu. Enplegua ez da soilik zenbaki kontua; herri baten etorkizun sozial eta ekonomikoa jokoan dago, eta horri dagokion mailako erantzun politiko, sozial eta sindikala eman behar zaio. LABen apustua argia da: industria bizia, bidezkoa eta jasangarria eraikitzea, langileekin eta langileentzat.

## Euskararen aurkako oldarraldiari aurre egin

Azken urtean euskararen aurkako oldarraldia areagotu egin da administrazio publikoan, eta horri aurre egiteko mobilizazio ugari antolatu ditugu lekuan leku. Erasoak ez dira isolatuak izan eta erantzun zabalago eta artikulatuago baterako oinarriak jartzen hasi gara, borroka lokalak elkarlotu eta indartzu.

EAEko hainbat eremutan mobilizazio sendoak egin ditugu: Bilboko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia, Erandioko eta Getxoko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia edota Euskotren bezalako erakundeetan langileekin eta, kasu askotan, gainerako sindikatuarekin eta euskalgintzarekin batera aritu gara. Nafarroan ere mobilizatu behar izan dugu, Lanbide Heziketan, esaterako.

Euskarak lan-hizkuntza eta herritarren zerbitzurako hizkuntza izan behar du administrazio guztietan. Ez dugu onartzen hizkuntza eskubideak urratzen jarraitzea, eta euskalduntzearen kontrako neurriei aurre egingo diegu irmotasunez.

Lekuan lekuko borrokak eta mobilizazioak funtsezkoak dira, baina badakigu testuinguru orokorrago baten parte direla. Horregatik, borrokak batu eta egoerak eskatzen duen tamainako erantzun bateratuak ematea dugu erronka, euskararen normalizazioan atzera ez egiteko, aurrera baizik.

## **Lan Osasuna**

Lan osasunaren egoerak ez du hobera egin eta langileen osasun galerak ez du etenik. Patronalak, ordea, ardura bere gain hartu beharrean, "absentismoa" izeneko mamua baliatzen du langileen eskubideak kolpatzeko eta arazo politiko bihurtzeko. LABek irmoki salatu du joera hori, eta laneko istripu zein heriotz bakoitzaren aurrean mobilizazioak eta protestak aktibatu ditu, sarritan lan osasuneko protokoloa osatzen dugun gainerako sindikatuekin elkarlanean.

Laneko jatorria sistematikoki ukatzen zaie milaka gaixotasun profesionalei; aldi berean, gaixotasun psikosozialak ugaritzen ari dira, eta laneko istripu eta heriotzak eguneroko bilakatu dira. Egoera kezkarri horren atzean interes ekonomiko zehatzak daude: patronalak etekinak handitu nahi ditu, langileon osasunaren kontura. Horren adibide garbia da mutuei eskumen gehiago emateko egiten ari diren ahalegina, prebentzio legea bete ordez, eta horretan administrazio publikoaren kudeaketaz arduratzen diren alderdien babesa izaten ari dira.

Patronalak berak sortzen dituen lan baldintza kaxkarrek ondorioz gaixotzen dira langileak, baina erantzukizuna langileari egotzi nahi diote, "absentismoaz" hitz eginez. LABek argi dauka nor den benetako erantzulea, eta lanean jarraituko du laneko gaixotasun, istripu eta heriotz guztiak salatzen, prebentzio legearen betearazpena exijitzen eta osasungintza sistema publikoa indartzeko borrokan.

## SEKTORE MAILAKO BORROKAK

| EREMUA                     | FEMINIZATUA | BORROKA<br>AKTIBATZEKO GAIA                            | ERABILITAKO<br>BORROKA MOLDEAK |
|----------------------------|-------------|--------------------------------------------------------|--------------------------------|
| <b>ARABA</b>               |             |                                                        |                                |
| KIROL JARDUERAK            | Ez          | Negoiazio Kolektiboa                                   | Mobilizazioak                  |
| OSTALARITZA                | Ez          | Negoiazio Kolektiboa                                   | Grebak                         |
| Zahar Egoitzak             | Bai         | Hitzarmena                                             | Grebak                         |
| Esku Hartze Soziala        | Bai         | Hitzarmena                                             | Mobilizazioak                  |
| Aniztasun Funtzionala      | Bai         | Hitzarmena                                             | Mobilizazioak                  |
| Aisialdia                  | Ez          | Hitzarmena                                             | Grebak                         |
| <b>BIZKAIA</b>             |             |                                                        |                                |
| Metal-merkataritza         | Ez          |                                                        | Mobilizazioak                  |
| Ur Partzuergoko kontratak  | Ez          |                                                        | Mobilizazioak Eta Grebak       |
| Ikuztegiak                 | Ez          |                                                        | Grebak                         |
| Ostalaritza                | Ez          | Negoiazio Kolektiboa                                   | Mobilizazioak                  |
| GRAFIKAGINTZA<br>BIZKAIA   | Erdia       | Hitzarmen Sektoriala                                   | Grebak                         |
| <b>GIPUZKOA</b>            |             |                                                        |                                |
| Salgaien Garraioa          | Ez          | Hitzarmena<br>Negoziatzeari Uko Egin<br>Dio Patronalak | Mobilizazioak                  |
| Esku Hartze Soziala        | Ez          | Erasoak                                                | Mobilizazioak                  |
| Zahar Egoitzak             | Bai         | Hitzarmena                                             | Grebak                         |
| Enplegu zentro<br>Bereziak | Ez          | Mutuak                                                 | Mobilizazioak                  |
| <b>NAFARROA</b>            |             |                                                        |                                |
| Iturgintza                 | Ez          |                                                        | Mobilizazioak                  |
| Funtzio Publikoa           | Bai         | Estatutoa                                              | Grebak                         |
| Aniztasun Funtzionala      | Bai         | Hitzarmena                                             | Grebak                         |
| Etxeko Langileak           | Bai         | Hitzarmena                                             | Mobilizazioak                  |
| Esku Hartze Soziala        | Bai         | Hitzarmena                                             | Mobilizazioak                  |
| Zahar Egoitzak             | Bai         | Hitzarmena                                             | Grebak                         |
| Publikako Irakasleak       | Bai         | Hitzarmena, Ratioak                                    | Grebak                         |
| Lanbide Heziketa           | Ez          | Euskara                                                | Mobilizazioak                  |
| Salgaien Garraioa          | Ez          | Hitzarmena                                             | Mobilizazioak                  |

| EREMUA                                       | FEMINIZATUA | BORROKA<br>AKTIBATZEKO GAIA          | ERABILITAKO<br>BORROKA MOLDEAK |
|----------------------------------------------|-------------|--------------------------------------|--------------------------------|
| <b>EAE</b>                                   |             |                                      |                                |
| ESKOLA GARRAIOA                              | Bai         | Hitzarmena                           | Mobilizazioak                  |
| KOLEKTIBITATEAK<br>SEKTORE OSOAN             | Bai         | Hitzarmena                           | Mobilizazioak                  |
| KOLEKTIBITATEAK<br>SEKTORE OSOAN             | Bai         | Subrogazioa Eta<br>Aldizkako Finkoak | Mobilizazioak                  |
| Anbulantziak                                 | Ez          | Publifikazioa                        | Mobilizazioak                  |
| Autobus Zerbitzuak                           | Ez          | Komunak Edukitzea                    | Mobilizazioak                  |
| Autobus Zerbitzuak                           | Ez          | Jubilazioa                           | Mobilizazioak                  |
| Ikastolak                                    | Bai         | Ekiparazioa                          | Mobilizazioak                  |
| Gizarte Ekimena                              | Bai         | Adostutakoa Bete                     | Mobilizazioak                  |
| Gizarte Ekimena                              | Bai         | Adostutakoa Bete                     | Mobilizazioak                  |
| Publikako Irakasleak                         | Bai         | Hitzarmena                           | Grebak                         |
| Publikako Irakasleak                         | Bai         | Adostutakoa Bete                     | Grebak                         |
| Hezkuntza publikako<br>sukalde eta garbiketa | Bai         | Hitzarmena                           | Grebak                         |
| Haurreskolak                                 | Bai         | Hitzarmena                           | Grebak                         |
| Funtzio Publikoa                             | Ez          | Hemen Erabaki                        | Mobilizazioak                  |
| Osasun Ituna                                 | Ez          | Osakidetzaren<br>Eraldaketa          | Mobilizazioak                  |
| Osakidetza                                   | Ez          | Osasun Arreta                        | Mobilizazioak                  |
| Etxez etxeko laguntza                        | Bai         | Eudeli Publifikazioa                 | Mobilizazioak                  |
| Enplegu Zentro<br>Bereziak                   | Ez          | Hitzarmena                           | Mobilizazioak                  |
| Hezkuntza publikoa                           | Bai         | Ordezko Irakasleak                   | Mobilizazioak                  |
| Hezkuntza publikoa                           | Bai         | Hezkuntza Publikoa<br>Indartu        | Mobilizazioak                  |
| Sukalde eta Garbiketa                        | Bai         | Lekualdatzeak                        | Mobilizazioak                  |
| Hezkuntza publikoa                           | Bai         | Hitzarmenak                          | Mobilizazioak                  |



| EREMUA                | FEMINIZATUA | BORROKA<br>AKTIBATZEKO GAIA      | ERABILITAKO<br>BORROKA MOLDEAK |
|-----------------------|-------------|----------------------------------|--------------------------------|
| HEH                   |             |                                  |                                |
| Zaintza sektoreak     | Bai         | Publikoak Gara                   | Mobilizazioak                  |
| IEH                   |             |                                  |                                |
| Etkez etxeko laguntza | Bai         | Hemen Erabaki /<br>Pribatizazioa | Mobilizazioak                  |

## ENPRESETAKO BORROKAK

| EREMUA                                       | SEKTOREA               | FEMINIZATUA | BORROKA<br>AKTIBATZEKO<br>GAIA                                                      | ERABILITAKO<br>BORROKA<br>MOLDEAK |
|----------------------------------------------|------------------------|-------------|-------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------|
| <b>ARABA</b>                                 |                        |             |                                                                                     |                                   |
| ENVISER                                      | Lorezaintza            | EZ          | Negoiazio<br>Kolektiboa                                                             | Grebak                            |
| A Y S                                        | Ingeniaritza           | EZ          | Negoiazio<br>Kolektiboa                                                             | Mobilizazioak                     |
